

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 450.000 euroekin finantzatuko ditu adinekoen elkartegintza sustatzen duten ekimenak

Diru-laguntza eskaerak ekainaren 13a arte aurkez daitezke

Jueves, 30 de mayo de 2013

Nafarroako Gobernuak aurten 450.000 euroekin finantzatuko ditu Foru Komunitateko adinekoen elkartegintza sustatzen duten ekimenak. [Diru-laguntza deialdi horren](#) oinarriak [Gizarte Politiken kontseilari Iñigo Alliren foru-aginduz](#) araututa daude, eta berriki Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira.

Deialdi horretan parte har dezakete, adinekoen arloan bakarrik esku-hartzen duten irabazi-asmorik gabeko entitate nafarrek eta harrera, informazio eta orientazio, dibulgazio eta sentsibilizazioko oinarritzko jarduerak garatzen dituztenek.

Horretarako, eskaerak ekainaren 13a baino lehen aurkeztu beharko dituzte [Nafarroako Gobernuaren edozein erregistro](#)tan. Gizarte Politiken Departamentuak [ezarritako formulario](#)az gain, beraien balantzea eta [aurrekontu](#) ekonomikoa, kontratatutako langileen zerrenda bat eta aurtengorako funtzionamendu-gastuen zerrenda bat eman beharko dituzte, beste dokumentu batzuen artean.

Deialdi horren bidez, entitatearen funtzionamendu-gastuen zati bat finantzatuko da (bulegoa, telefonoa, argia, gasa...) eta baita funtzio tekniko, administratibo, garbiketa, sukaldaritza edo atezaintzako funtzioak egiten dituzten langileen kontratazioko gastuen zati bat ere.

Diru-laguntzen emakida lehiaketa-prozeduraz ebatziko da, entitateko bazkide kopurua balorazio-irizpidetzat hartuz eta, hala badagokio, gizarte-bazterketa izateko arrisku handia duten adinekoen arreta.